

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Berotegi-efektuko gas-igorpenak % 3,8 igo ziren 2017an, Nafarroan

*2020-2030rako Klima Aldaketaren ibilbide-orrian jasotako neurriek igorpen horien murrizketa bermatu beharko dute, aurreikusitako helburuak betetzeko*

Ostirala, 2019.eko martxoak 29

Nafarroan, [2017ko berotegi-efektuko gasen inbentarioan](#) jasotako datuen arabera, foru-erkidegoan [igorpen zuzenak](#) % 3,8 areagotu dira 2016arekiko, 5,74 miloi tonaraino iristeraino. [Txostenean](#) jasotakoaren arabera, 2014az geroztik energiarena da gas-igorpenak gehien areagotu dituen sektorea (% 77,6 hain zuzen, azken urteotan).

Azterketan azaltzen den bezala, areagotze hori ekonomiaren eta kontsumoaren aktibazioari lotuta dago, eta Berotegi Efektuko Gas igoeretatik ez da behin betikoz banandu.

2017ko datu-analisiaren arabera, inbentarioak honela banatzen ditu sektoreak, gas-igorpen mailaren arabera: lehenbizi, industria-sektorea dago ( % 28,14ko gas-igorpena); gero, garraioa (% 20,26) eta lehen sektorea ( % 18,32). Eta, atzetik, lehen aipaturiko energia-sektorea, % 17,2ko gas-igorpenarekin, 2014az geroztik antzemandako igoeraren kausa nagusizat jotzen dena.

2017an 986.730 tona CO<sub>2</sub> baliokide igorri dituen sektore honen barruan daude ziklo konbinatuko zentraletan elektrizitatea sortzeko prozesuetako igorpenak eta hondakinak kudeatzeko instalazioetan eta industria-kogenerazioko fabriketan egindako igorpenak eta erregai gaseosen hornidura-sistemetakoa ihesak.

2016arekin alderatuta ere industria-sektorea da gas-igorpenak gehien areagotu dituen sektorea (% 7,6). Haren atzetik datoz bizitegien eta zerbitzuen sektorea ( % 6,5), energia-sektorea (% 3,3), hondakinen sektorea (% 2,1) eta garraio-sektorea ( % 1,94). Lehen sektorean, aldiz, gas-igorpena % 0,56 murriztu da.

### 8 tona CO<sub>2</sub> per capita baino gehiago

2017an, pertsona bakoitzeko per capita –CO<sub>2</sub> igorpenak 8,72 tonakoak izan dira (8,3 izan ziren 2016an). 2014az geroztik joera gorakorra antzeman da, aintzat hartzen badugu 1990an pertsona bakoitzeko 7,8 tonara iristen zela Nafarroan. Europar Batasuneko datuen arabera (EDGAR), Estatu osoan 6,09 tona per capita inguruan dago. Frantzia 5,20 eta Erresuma Batuan 5,73. Nafarroa Poloniaren (8,36), Finlandiaren (8,48) eta Norvegiaren (8,85) parean egongo litzateke, eta Belgikaren (9,12) eta Alemaniaren (9,70) azpitik.

### Gas-igorpenen murrizketa, Ibilbide Orria eta Klima

## **Aldaketaren Foru Legearen aurreproiektua**

KLINAREN helburuak eta proiektzioak betetzeari dagokionez, Nafarroan Klima Aldaketaren Ibilbide Orriak ezartzen du 2020an Berotegi Efectuko Gas igoerpenak % 20 murriztuko direla 2005arekiko. Proiektzioen arabera, 2017an gas-igoerpenak % -18,6 murriztu behar ziren, aldiz, % -1,61 murriztu dira, aurreikusitakoa baino portzentajezko 2,5 puntu gutxiago hain zuzen.

2017an hirugarren urtez jarraian gas-igoerpenen urte arteko igoera eman da (% 3,96 hain zuzen 2016arekin alderatuta), eta aurreikusitako murrizketa-ibilbidetik desbideratzeak eta 2018rako aurreikuspenek arriskuan jartzen dute 2020rako gas-igoerpenen murrizketa lortzeko helburua.

2030rako ezarritako helburuaren betearazpenari dagokionez, 2020-2030rako aurreikusitako neurri guztiak martxan jartzea eta gas-igoerpenak % 45 murriztea espero da, 2005arekin alderatuta. Horretarako, Klima Aldaketaren eta Energia Trantsizioaren Foru Legean babestuko dira. Foru Legearen [aurreproiektua](#) aurkezpen eta informaziorako eta partaidetzarako prozesuan dago jada, foru-erkidegoan zehar toki ezberdinetan egiten ari diren saio irekien bitartez.